

Pentsamendu kritikoa irakasgai?

Teresa Maldonado Barahona
Filosofia irakaslea Bigarren Hezkuntzan

Pentsamendu kritikoren motorra jakiteko irrika da,
bizitzak nola funtzionatzen duen ulertzeko irrika.
bell hooks

Esan gabe doanaren diktadura bat dago,
eta hori kritikaren kontrakoa da,
zure kabuz pentsatzeko oztopo bat.
Elena Martinez Rubio

Lagun batek pozaren pozez kontatu zidan aurrekoan alaba ikasturte honetan Pentsamendu Kritiko eta Autonomia izeneko ikasgaiari matrikulatu dela, DBHko 3. mailan. Filosofia irakaslea naizela Bigarren Hezkuntzan eta filosofia izugarri gustuko dudala dakienez, konplizitatez begiratu zidan, zorionak emango nizkiola suposatuz, nik uste. Baina ez nion zorionik eman, izorratzaile puska. «Pentsamendu kritiko eta autonomoko ikasgai?», galdetu nion, ordea, sinesgaitz eta harritu samar.

Irratsaio batean Javier del Pino kazetariak psikologo bati egindako elkarrizketa ipini berri dute, unibertsitatean Pentsamendu Kritikoaren ikasgai ematen baitu. Elkarrizketatuak zein elkarrizketatzaileak azpimarratu dute, arrazoi onak emanda, gaur egun pentsamendu kritikoa garatzea zein komenigarria den. Eta nik, berriz ere, galdera berarekin, orain nire baitarako: pentsamendu kritiko izeneko *ikasgai* bat? Ezin dut elkarrizketa osorik entzun, baina galdera bueltaka geratzen zait buruan. Eta beste batzuk ere datoz berehala: zergatik ez zait egokia iruditzen izen hori duen irakasgai bat egotea? Ala nire objektzio amorfoa eta zehaztugabea ote da desegokia dena? Ez al gaude denok pentsamendu kritikoren oso alde? Bada, ea hori den arazoa. Goazen zatika.

* * *

Irakaskuntzaren tarte bakoitzean ikasi beharreko ezagutzak ikasgai edo irakasgaietan banatzen dira. Ikasgaiok jakintza-arloak izenekoekin datoz bat. Ezagutu eta ikas daitekeen guztia bukaezina denez, eremu edo materia horietan banatzen da, egokitasun handiagoz edo txikiagoz. Noski, bereizketa analitikoa da; errealitatea, aldiz, jarraitua da eta bertan gauza asko elkarri lotuta daude. Horregatik komeni da diziplinarteko ikuspegiaren beharrari erreparatzea. Ataza hori filosofiari dagokio, neurri handi batean behintzat.

Arte Eszenikoak, Marrazketa Teknikoa, Historia Garaikidea, Filologia Erromanikoa, Biologia Molekularra, Zuzenbide Erromatarra, Aljebra Lineala, Kimika Organikoa, Mekanika Klasikoa institutuetan eta fakultateetan ikas daitezkeen ikasgaietako batzuk baino ez dira (bakoitzari bizitza osoa eskaini ahal diogu). Beste asko daude, baina *substantiboa + adjektiboa* egitura horri berari erantzuten dioten izen-zerrenda lagina egin nahi izan dut. Errepertorio

horri Pentsamendu Kritikoa gehitzeak nolabaiteko deserosotasuna sortzen du. Jorge Luis Borgesek imajinatutako *Emporio Celestial de Conocimientos Benévolos* izeneko entziklopedia txinatarraren animalien sailkapenak sortzen zuen antzeko deserosotasuna, nahiz eta gure kasuan aztoramendua akaso hain handia ez den. Askotan izan da gogora ekarria entziklopedia hura. Adibidez, Michel Foucaultek *Les mots et les choses*-en hasieran egiten du, Mario Vegettik *Il coltello et lo stilo*-n edo George Perecek *Penser/Classer*-en. Entziklopedia hartan eskaintzen zen animalien sailkapenak honako kategoria hauek zituen: a) Enperadorearenak; b) Balsamatuak; c) Amaestratuak; d) Letxoiak; e) Sirenak; f) Alegiazkoak; g) Zakur solteak; eta horrela 'n' letraraino ('n', hain zuzen!). Animalien sailkapen liluragarri eta bizigarri horrek pentsatzera behartzen gaitu nahitaez. Hortik abiatuta, Foucaultek honako galdera egiten du: zein oinarriekin esaten dugu txakurrak eta katuak bi galgok baino antz txikiagoa dutela, nahiz eta bata zein bestea gatibutzan edo baltsamatuta egon? Hau da, normalean onartzen ditugun sailkapenen oinarriaz galdetzen du.

Sailkapen bat egiteko, bi gauza behar ditugu: sailkatu beharreko objektuak eta irizpide bat. Sailkapen-irizpide bat behar dugu objektuak bereizi, banatu eta taldekatzeko. Baliteke, testuinguru jakin batean, lehen planora ekarri behar izatea animalia askeak daudela eta beste batzuk gatibu daudela. Baina, testuinguru zehatz eta mugatuetatik kanpo, animalia motei buruz hitz egin behar badugu, ez dirudi hori irizpide egokiena denik. Drogei buruz hitz egitean ere (beste adibide bat), esan dezakegu batzuk erre egiten direla, beste batzuk arnastu eta beste batzuk injektatu. Baina, oro har, drogen sailkapen batek drogak-diren-horretara joan beharko luke; nerbio-sistema zentrolean eragiten duten efektuaren arabera antolatzea dirudi zentzudunena (adibidez, honelako adjektiboak erabiliz: kitzikagarriak, lasaigarriak eta haluzinogenoak, albo batera utzita zein bide erabiltzen den gorputzean sartzeko). Gauza bera (azken adibidea) zein musika mota gustatzen zaigun galdetzen badigute: arraroa litzateke erantzutea aplikazio jakin batean entzuten dena edo magnetofonozko zintetan, CDan edo *pendrive*-an grabatutakoa.

Baina onar dezagun sailkapenak egiteko irizpiderik egokiena topatzea ez dela beti erraza (liburutegietan lan egiten dutenek ondo dakite hori).¹ Agustin Arrietak esan du inoiz sailkapenak egitea oso jarduera zaila dela, eta horregatik, hain zuzen, kontu handiz egin behar direla. *Pentsamendu kritikoa gartzten* izenburuko hitzaldia eman zuen Arrietak Elhuyar Solasaldien esparruan. Komeni da entzutea.² Hasieratik ohartarazten du ez dagoela bidezidorrrik, errezetarik edo algoritmorik pentsamendu kritikoa dei daitekeen zerbaitera iristeko lana saihesten duenik. Seinalatzekoa da joera zabala dagoela pentsamendu kritikotzat nork berea hartzeko, edo norberari gehien gustatzen zaiona. Baina, Arrietak argitzen duenez, kritikarako gaitasuna (izen hori merezi duen pentsamendu orotan presente egon behar duena) zerari aplikatu behar zaio lehenengo eta behin, nork bere ideia eta sinesmenei: autokritikarako gaitasuna pentsamendu bat zein kritikoa den neurtzeko metrorik egokiena da. «Gure sinesmenak zalantzan jartzeko gaitasuna da pentsamendu kritikoa», esaten du beste nonbait.³ Pentsamendu Kritikoa izeneko ikasgaia daukatela AEBetan aipatzen du hitzaldian, baina oso ginetik, ez baitoa horretara, eta albo batera uzten du.⁴ Hala ere, beti izaten da lagungarria gauzak nondik datozen jakitea. Gero ikertuko dugu hori pixka bat gehiago. Antzeko moduan C. Ulises Moulinesek filosofiaren berezko jarrera kritikoa autokritika amaigabe gisa nabarmendu du, ikusiko dugunez.

Pentsamendu kritikoa, nolana ere, ahalegin handi eta jarraitu baten emaitza da, inoiz ez erabat lortutakoa. Ezin da teorema matematiko baten gisa azaldu, ezta literatura erromantiko modura jorratu ere. Ezin da irakatsi, zibilizazio minoikoa bezala, ezta ikasi ere, hizkuntza bat hitz egiten ikasten den bezala. Bi hitzetan, ezin da *gai* bihurtu, behar lukeena izateari uztearen

trukean baino: animatu, eragin, bilatu, estimulatu daitekeen jarrera edo joera bat. Objektu-hizkuntza eta meta-hizkuntzaren arteko bereizketarekin gertatzen denaren antzekoa da: hizkuntza, hari buruz hitz egiten dugunean, ez da gauzei buruz hitz egiteko erabiltzen dugun hizkuntza berbera. Kaiolan giltzaturiko animaliaz, eguna erdi lokartuta igarotzen duena burdinazko barren atzetik tristuraz begiratzen... esan daiteke animalia basatia izaten jarraitzen duela? Modu berean, pentsamendu kritikoa ikasgai baten kutxatxoan harrapatu nahi izateak *ezarritako pentsamendu* bihurtzea baino ezin du eragin, definizioz.⁵ Pedagogo eta burokrata maiteak: ikasgaiak mugatzen eta eratzen ari zarete, ez blog bati izen moloiak jartzen.⁶

Arrietaren hitzaldiaren puntu batzuetatik apur bat urrunduz, pentsamendu kritikoa alderdi ezagutarazleari erreparatu nahi diot. Beste filosofo batzuekin batera, berak dio pentsamendu kritikoa (zientzietan aurkitu daitekeen hura, adibidez) sen onaren nolabaiteko luzapena dela. Seguru asko, badago horrelako zerbait, baina kontrako alderdia nabarmendu nahi dut, hau ere baitago. ‘Teoria’ hitzarekiko ahaidetasun estuan (zeinaren etimologiak ikustearekin eta begiratzearekin lotzen baitu), pentsamendu kritikoa seinalatzen, estalgabetzen eta argitzen duen hura da. Beraz, errealtatea eta itxura nahastu behar ez direlako nolabaiteko onarpena eskatzen du (ai, binarismo saihetsezin horiek!). Emandakoa, berehalakoa, agertzen dena eta erakusten dena zalantzan jartzea ere badakar, kasu horretan, beraz, sen onetik aldenduz. bell hooksek dio pentsamendu kritikoa funtsezko egiak ulertu nahi dituela, azpian daudenak, eta ez soilik lehen begiratuan begi-bistakoa zaigun azaleko egia.⁷ Susmo metodiko eta sistematikoarekin du zerikusia, zeinak, gainera, bere burua zaintzen baitu (Arrietarekin berriro ados) ukazio sistematiko ez bihurtzeko, horixe baieztapen akritiko eta oharkabekeko modalitate bat izan daitekeelakoan. Jarrera eta lan neketsua den kritikak zapaltzen dugun lurra ezegonkortu behar du. Pentsatu ohi duguna baino errazagoa da kapitalismoaren, patriarkatuaren edo erlijioen ez-dakit-zer seinalatzea eta salatzea. Askoz zailagoa da gure ideia eta sinesmenei kritikoki begiratzea. Hasteko, horietako batzuen jakitun ere ez garelako. Norberaren aurreiritziak identifikatzea eta aurre egitea bizitza oso baten zeregin etengabea da.

* * *

Sailkapenetara itzuliz une batez: Gilbert Ryle britainiarra, tradizio analitikoaren filosofoak, dagoeneko susmatzen ditugun intuizio batzuk jartzen ditu agerian. Adibidez: eskularru pare bat erosi badut, ezin dut esan eskularru bat ezker eskuarentzat, beste bat eskuinarentzat eta eskularru pare bat erosi ditudala. Magnitude horiek ez dira batzen, maila desberdinetan daudelako (Espainiako politikari batek udare eta sagarrekin azaldu nahi izan zuen antzeko zerbait, baina uste dut nahikotxo nahasi zela). Zientziari buruz hitz egiten dugunean eta kimikari buruz hitz egiten dugunean gauza erabat desberdinei buruz ari garela esatearen antzekoa litzateke. Kimikak ez du zientzia agortzen, baina zientziaren barruan dago, eskularru pareak eskuineko eskuarena eta ezkerrekoarena barne hartzen dituen bezala. Mailak nahastea kategoria-errore (*category mistake*) batean erortzea dela dio Rylek.

Nire ustez, ikasgaien zerrendan Pentsamendu Kritikoa sartzea kategoria-errore horietako bat da. ‘Kritikoa’ ez da pentsamenduarekin erlazionatzen ‘molekularrak’ biologiarekin egiten duen modura, edo ‘erromantikoak’ literaturarekin. Zein adjektibo mota den ‘kritikoa’ jakiteak zeresanik dauka hemen, ez baitu uzten hura ‘eszenikoa’ edo ‘teknikoa’ bezalakoekin batera kokatzea. Alderantziz, beste hauetatik gertuago dago: ‘goxoa’ (janariaz esanda), ‘sortzailea’ (arteaz) edota ‘ona’ (literaturaz, adibidez). Jakina, egon daiteke artea sortzailea ez dena, eta janaria batere gozo ez dagoena. Egon liteke, orduan, kritikoa ez den pentsamendurik? Pentsamendu akritiko bat? Izan ere, pentsa genezake ‘kritikoa’ pentsamenduaz esaten dela

‘zuria’ elurraz esaten den modura (edo, bestela, bai, pentsamendu akritikoa dagoela onartu behar dugu). Argitu behar duguna, orduan, zera da: ea kritiko izatea pentsamenduaren ezaugarri analitikoa ala sintetikoa den, hau da, zerbait esentziala, berezkoa, ezinbestekoa ala, alderantziz, kontingentea eta ez-nahitaezkoa. Baina hona hemen garrantzitsuena: Marrazketa Teknikoa existitzen bada, Marrazketa Artistikotik bereizten delako da; Kimika Organikoa izenekoa Ez-organikotik bereizten den legez (korapilo hori muntatu dutenek Aristotelesen filosofia gainetik bakarrik ezagutuko balute!). Zein ikasgaitatik bereiziko litzateke Pentsamendu Kritikoa, *Pentsamendu Dogmatikoa* deituko genukeen batetik? Azken hori ere aukeran izango lukete ikasleek? Bada, horixe.

* * *

Sarean ausazko begirada botatzen badugu, izen hori duen ikasgai baten proposamenaren nondik norakoak ikusteko, berehala aurkituko ditugu azalpen-gako interesgarriak. Adibidez, 2018ko artikulu akademiko batean argi eta garbi esaten da:

Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzaren garapenari esker [sic], goi-mailako hezkuntzan pentsamendu kritikoarekiko interes handia sortu da. Enplegarritasunak, bestalde, eragin handia izan du ingurune berritzaile batean garapen profesionalerako ezinbesteko gaitasun gisa duen protagonismoan.⁸

Azkenean! Dena argituta. Beraz, bilatzen ari garen pentsamendu kritikoak enplegarritasunarekin bateragarria izan behar du! Hau da, kritikoa izango da, baina ez gehiegi. Jakina, konpetentzien sasi-pedagogiek (edukien ahanztura dakartenek) atzean egon behar zuten, hariak mugitzen! Bada, bide batez, esan daiteke aipatutako testua pentsamendu kritikoa gauzatzeko oso eremu erakargarria dela... testuak berak defendatzen duena suntsitu lezakeena. Ez da bakarra, beste leku batean honako hau aurkituko dugu:

Pentsamendu kritikoa irakasteko ekimen on bat beti ekintzara bideratu behar da, *lorpenetara*, arazoak konpontzera, azken batean, ongizate handiagoa, gogobetetze edo zorientasun pertsonal eta sozial handiagoa lortzera. [...] Gure gazteek [sic], batez ere, beren arazoei irtenbideak bilatzen dizkiete, *beren asmoak lortzeko moduak*.⁹

Zinez, bi lerrotan arrazoimen kritikoa arrazoimen instrumentalarekin parekatuta. Frankfurtoko Eskolako dozenaka orrialde zakarrontzira botata kolpe batez (ezeztatu eta aipatu ere egin gabe). Pentsamendu kritikoak salmenta sail baten kutsua du (edo kiratsa): *zer bilatzen dute gazteek? Eman diezaiegun eskatzen dutena, bada! (euren nahiak nondik, nola, zergatik sortzen diren ez da gure arazoa, jakina)*. Pedagogo horientzat, zorioneko irakasgaiak Hannah Arendtek duela 50 urte aipatu zituen «arazoak konpontzeko profesionalak» eredutzat har ditzake, garaitzera ohitutako gizonek –zioen filosofoak– oso gutxitan jartzen baitute zalantzan arrakasta lortzeko duten gaitasuna.¹⁰ Ederto.

Hainbesteko matraka konpetentziekin eta zeharkakotasunarekin, eta benetan horixe den zerbait agertzen denean, kutxa batean sartu nahi dute (dena dela, zientzia kognitiboaren ikuspegitik ere ez dirudi justifikatua dagoenik pentsamendu kritikoa zeharkako gaitasun edo konpetentzia gisa hartzea).¹¹ Esan nahi al du horrek Filosofia sailek ez dutela zer eginik kontu honetan? Guztiz kontrakoa, filosofia (adjektibo egokiekin) irakatsi behar dugu: arazo filosofikoak xeha ditzagun, gizarte-arazoei tresna filosofikoekin hel diezaiegun, zenbat jakin behar den etikako tradizioei buruz erakuts dezagun. Hor sortuko da, berez, pentsamendu kritikoa.

Gehiegi errepikatzen zen azken boladan pentsamendu kritikoa beharra, eta horrek asaldatu eta erne jarri behar izan gintuen. Ideiak edo proposamenak lelo eta esaldi huts bihurtzen direnean... akabo. Eta pedagogoak adituak dira esaldi eta leloetan. Oso susmagarria zen hezkuntzako legetako printzipio-adierazpen guztiek behin eta berriz errepikatzea pentsamendu kritikoa bultzatu behar zela, Filosofia sailtako ikasgai eta hizkuntza klasikoei orduak kentzen zitzaizkien bitartean. *Ez al zenuten pentsamendu kritikoa nahi? Bada, hemen daukazue, behar bezala latoratua.* Agerian utzi dute zelako kontzeptua duten gutaz (gazteei buruz daukatena ez aipatzeagatik).

Frankfurteko Eskola aipatu dut, *Gizartearen Teoria Kritikoaren* sorlekua. Arrietak gogorarazi du John Deweyrengan dagoela *Pentsamendu Kritikoa* sintagmaren jatorria, korrante filosofiko baten etiketa gisa (pentsamendu orok kritikaren osagai hori izan arren). Teun van Dijk pentsalariaren *Diskurtsoaren Analisi Kritikoa* delakoa ere aipa dezakegu (geroago nahiago izan zuen *Diskurtsoaren Ikasketa Kritikoak* izendatzea). Hor daude, halaber, Feijooen *Antzerki Kritikoa*, Kanten *Filosofia Kritikoa*, Marxen arabera zeregin filosofikoaren alderdi kritikoa... Hau da, gaiaren *loci classici* ugari aurki daitezke, Ilustrazioan funtsezkoa den eta, hala edo hola, aurreiritziaren eta ezjakintasunaren aurkako borrokari lotuta dagoen kritikaren kontzeptuari lotzen zaizkionak. Hori guztia filosofiako irakasgai bateko gaitzerrenda batean egon daiteke; ikasgai horrek jakintzaren hainbat adarren ekarpenak hartuko lituzke kontuan.¹²

* * *

- Pentsamendu Kritikoa gainditu al duzu? Niri Marrazketa Polita penkatu didate –esaten dio ikasle batek gelakideari.
- Oraindik ez dakit –erantzuten dio bigarrenak–, baina Heldutasun Oreakua gainditu dut!

Ikasleen arteko elkarrizketa izan liteke hori, distopia orwelldar batekoa. Batzuek pentsamendu kritikoa irakatsi eta besteek ikasi behar izateak badu antzekotasunik Palo Altoko eskolak ikertutako ‘mezu paradoxikoarekin’. Hori agertzen da, adibidez, norbaitek eskatzen badigu: «Izan zaitez espontaneo!». Aginte beteezin horrek hizkuntzaren sorginkeria uzten du agerian: berak adierazten duena eragozteko ahalmena hartzen du barne, hauts bihurtuz, Zeusen tximista distiratsu eta suntsitzailearen antzera. Aztikeria agerian da batek eskatzen duenean: «eman iezadazu musu espontaneo oraintxe bertan». Era berean, nerabe bati pentsamendu kritikoa zertan den irakatsi nahi izatea aporia gaindiezina da (zer esanik ez helburua denean berak deskubritzea, esperimintatuz eta bere kasa edo klasekideekin jolastuz).¹³

Jakina, filosofia-klaseetan hausnarketa egiten dugu pentsamendu kritikoa inguruan, derrigor aipatu gabe (eta matematiketan, historian edo zientzietan ere sarri egiten dute). Baina ez zait bururatzen modu hobeagorik, ez perbertsoagorik, pentsamendu kritikoa minimo bat antzemateko aukera bera betiko ehorzteko, ikasgai batean sartzea baino.

* * *

Pentsamendu kritikoa *zergatik* eta *zertarako* galderei lotuta, horren eta zenbait jarrera pertsonal edo kolektiboren arteko harremanari buruzko kontsiderazio bat falta da hemen (horrelakorik baldin badago). Hau da, pentsamendu kritikoa eta jarrera batzuen arteko lotura, alegia, errebeldia, intsumisioa, desobedientzia, disidentzia, transgresioa edo subertsioa

(jarrera eta programa horiek ekintza puntualak edo jarrera iraunkorrak izan daitezke, hala nola militantzia eta aktibismo antisistema gutxi gorabehera eraldatzailea). Gogora datorkit orduko feminista gazte askok (80ko hamarkadaren erdian) sarritan kantatzen genuen abestia: «*Hezkuntza, jaunak, ez zait interesatzen, nire bandera desobedientzia da*», Iruñeko Belladona rock taldearen eskutik.¹⁴

Beste jarrera eta aldarrikapen askorekin gertatzen den bezala, desobedientzia edo errebeldia bandera bihurtzeak testuinguru eta zirkunstantzia jakin batzuei dagokienez soilik izan dezake zentzurik. Oro har desobedientziara dei egiteak, baldintzak edozein direla ere, jarrera eta aldarrikapen horiek pose estetiko huts bihurtzen ditu, eduki kritiko edo akritikorik gabekoak. Erreferentziazko testuinguru bat ezinbestekoa dela argi eta garbi ikusten da eslogan feminista batzuei erreparatuta: «*Gaiztoak gara, eta askoz ere gaiztoagoak izan gaitzke*» edo «*Neska zintzoak zerura doaz, bihurriak edonora*». Lelo horiek ulertzen dira moral zehatz baten aurkakoak direlako, oso eduki argi eta identifikagarriak dituen moral baten aurkakoak. Moral hori, gainera, indarrez inposatua izan da luzaroan (hau da, ez da bakarrik hegemonikoa izan). Moral horrek neska edo emakume ona eta txarra izatea zer den ezartzen du zehazki, eta bakarrik horri dagokionez gonbidatzen zaie neskei, zentzu bakar horretan, gaiztoak izatera. Jakina, inork ez du bilatzen neskek promesak ez betetzea, lagunak engainatzea edo instrumentalizatzea, herrikideei lapurtzea, gaizki tratatzea edo esplotatzea, ahulez abusatzea... Horiek guztiak inork aldarrikatzen ez dituen gaiztakeriaren zehaztapenak izango lirateke.

Ez dakit pentsamendu kritikoaren helburua nahitaez desobedientzia, intsumisioa, subertsioa edo errebeldia den.¹⁵ Azken hori, dirudienez, jarrera orokor gisa sustatu ahal izango litzateke, eta ez soilik zerbait konkretu baten aurka, gehiago baitagokio hori desobedientzia eta intsumisioari. Boteprontoan, behintzat, desobedientziak eta intsumisioak arau eta agindu zehatzak behar dituztela dirudi, euren aurka agertu eta aritu ahal izateko.

Edozelan ere, argi dago pentsamendu kritikoaren eta desobedientziaren edo subertsioaren arteko harremanari buruzko hausnarketa horrek (orain alde batera utziko dudana) berretsi egiten duela lehen esandakoa: hezkuntza arautuan Pentsamendu Kritikoa izeneko irakasgaia egoteak mezu paradoxikoa dakarrela nahitaez. Gogora dezagun mezu paradoxikoaren funtsezko ezaugarria dela ezin dela bete, baina askotan ere ezin dela bete gabe utzi, adibidez, norbaitek desobeditzeko agintzen badigu (horregatik da paradoxikoa).¹⁶

Hori alboratuta, ez dago argi pentsamendu kritikoaren eta gizarte-erlaketaren artean lotura zuzena eta berehalakoa dagoenik ere, nahiz eta horixe premisatzat hartzen den askotan.¹⁷ Filosofia bigarren graduko jakintza edo jarduera dela abiapuntu hartuta (hau da, ez dagoela filosofia berez, bakarrik erlijioaren, zientziaren eta abarren filosofia baizik),¹⁸ Moulinesek argudio onez defendatzen du filosofoa, filosofoa den heinean, bereziki trebatua dagoela ez kritika sozialari ekiteko, baizik eta «erlijioaren, zientziaren edo dena delakoaren xehapen kontzeptuala eskaintzeko»:

Gogoeta filosofikoaren lehen helburua ez da gizartearen kritika gauzatzea (are gutxiago gizartea eraldatzea), baina bai, aldiz, beste jarduera intelektual batzuen oinarri kontzeptualak zalantzan jartzea, gizartearen erlaketara eraman baitezakete. Zentzu horretan, bitarteko gisa, filosofia badauka zeregin sozial bat.¹⁹

Moulinesek arrazoia badu, motibo gehiago izango dute irakaskuntzako burokratek pentsamendu kritikoa modu benetan eraginkorrean ez sartzeko ikastetxeetan (esan nahi dut, irakasgai batean latarratu gabe, horrela definizioz kritika desaktibatu egiten baita, azaltzen ari

naizenez). Moulinesen arabera, filosofiak, jarduera kritiko gisa (ez du horrela deitu nahi hitzaz asko abusatu delakoan) ziurgabetasun orokorraren sustapena ekarri behar luke.²⁰

Planteamendu horrek filosofia gaur egun indartsu irekitzen ari den bide batetik urrundu egiten du, ziurgabetasunak eta zozokeriak eragindako ezinegon zabala arintzeko sorturiko bidea, hain zuzen ere. Kontuan hartzen ari garen ikasgaiak filosofia ulertzeko eta praktikatzeko modu honetara hurbiltzeko aukera asko izan ditzake: *coaching* filosofikoaz ari naiz, jakina. Menturazkoa da hemen aipatzea, fenomeno askotarikoa eta jada oso garatua baita, eta orain eskain diezaiokedana baino gogoeta sakonagoa beharko luke. Baina gaia lerro gutxi batzuetan ahitzeko asmorik gabe, zertxobait esango dut. Hasteko, filosofia praktikoa forma bat dela; filosofia praktikoa adierazpenak ekintzarekin zerikusia duten filosofiaren eremu horiek izendatzen ditu, hala nola etika eta filosofia politikoa. *Coaching* filosofikoa filosofia praktikoa da, baina bere kontzepziorik helenizatzaileenean, eta, horregatik, despolitizatuenean. Martha Nussbaumek honako hau dio filosofia helenistikoa aurkezten duen *The Therapy of Desire* ikerketa handian:

Greziako eta Erromako eskola filosofiko helenistiko guztiek (epikureo, eszeptiko eta estoikoek), filosofia giza bizitzako zailtasunik nekagarrienei aurre egiteko bide gisa ulertu zuten. [...] Eskola helenistiko handiak oso kritikoak dira dauden gizartearekin, baina horien estrategiak ez dira bidegabekeria nola amaitu erakusten aritzen, baizik eta ikasleei irakasten diete jasaten duten bidegabekeriaren aurrean axolagabe jokatzeko.²¹

Nussbaumek adierazten duen bezala, terapia filosofikoa zerikusi gutxi du aldaketa politiko, instituzional edo materialarekin. Moulinesek, bere aldetik, ez du filosofia salbazio edo kontsolamendu jakintzat hartzen, zeren erlijioaren ordeztu ikusten baitu hura ulertzeko modu horretan. Erlijio-fedea galdu dutenentzat filosofiak ustezko jakintza arkano eta kontsolatzaile gisa duen zeregina oso erakargarria izan daitekeela adierazten du, honako hau gehituz: «Eginkizun hori filosofikoa ez den publikoaren zati handi batek filosofoarengandik zehazki espero duenari dagokio». Filosofoa *guru* laiko moduko bat bihurtzen da, bere karisma pertsonalarekin jendea ongi bizitzera bideratzen baitu. Horren aurrean, filosofiak mota guztietako *guruak* (laikoak izan zein ez izan) mesfidantzas hartu behar dituela defendatzen du berak.

Honako hauek egiazkoak izango balira: (a) *coaching* filosofikoa terapia filosofiko moduko bat izatea, pentsamendu helenistikoaren ildotik, eta (b) pentsamendu kritikoa *coaching* filosofikora mugatzea (eta aukera dezente ditu horretarako), zirkulu kezkarri bat itxiko litzateke. Lehen aipatu dudak orekatik urrun (mundu akastun batera egokitzearen eta mundu hori hobetzeko tentsioaren artean), hezkuntza arautua, Pentsamendu Kritikoa ikasgaiaren bidez, obediencia akritiko eta inkontzientearen bultzatzaile bihurtuko litzateke, sistemarekiko funtzionala, egungo erregimen sozial eta ekonomikoaren premiei erantzuteko mekanismo moldagarria. Testu pedagogiko batzuetan enplegarritasunari eta abarri buruz aipatu ditudan erreferentziek okerrena espero izatera gonbidatzen dute.

Aurrekoaz gain, horrek guztiak erlaziotzen bat dauka (aztertu eta hausnartu beharrekoa) beste gai batekin: hainbeste jende zuzentasun politiko ezaz harrotzea, azkenean, zuzentasun politiko berria bihurtu da. Politikoki zuzena ez izatearen zuzentasun politikoaz hitz egiten da dagoeneko.²² Politikoki ez-zuzena izatearen itxurakeriak benetakotasun eta askatasunez pentsatzeko gaitasunaren ustezko irudia proiektatzen du, inolako mendekotasun edo loturarik gabe. Baina hainbeste aktoreren gehiegi antzeztu izanak, inoren aginduen menpe ez dauden libre-pentsalaritzat hartuak izatea modu nabarmen eta enfatikoegian bilatzen baitute,

antzokitxoa hondatu egin du. Zuzentasun politiko ezaren gehiegizko ugaritasun inpostatu horrek, jarrera errebelde, intsumiso, desobediente edo urratzaile bati eusteko beharrarekin lotuta doanak, hizkuntza psikoanalitikoan 'bigarren mailako irabazia' deitzen den zerbaitekin zerikusia du: normalean oharkabean bilatzen dugun onura hori, besteen arretan, errekonozimenduan eta txaloetan zehaztua. Esan bezala, beste baterako geratzen da gai horien guztien garapena.

* * *

Ikasleek Pentsamendu Kritiko eta Autonomoan matrikulatzeko aukera izango dutela jakiteak aldaratze amorfo bat eragin zidan, nire gogoeta bakartian aurrera egin ahala forma hartzen joan dena (ez horren bakartia, egia, agerikoa denez, filosofo batzuen laguntzaz egin baitut). Ikusiko duzue zelako altxorra topatzen dugun kolektiboki pentsatzen hastean, urrea diamantearekin!

Pare bat hitz baino ez bukatzeko: oso litekeena da nik neuk ditxosozko ikasgaia eman behar izatea etorkizun gertuan. Kritikaren adierazpenik duinena ez zaidala aitortuko susmatzen dut, ikasgaia emateari uko egitea, alegia. Jasota gera dadila hemen, gutxienez, nire arrazoimenaren erabilera publikoa. Lan arloan obeditzera behartuta nago, Kantek ondo zekienez (tira, gutxi gorabehera behartuta, dena pikutara bidaltzeko aukera eskuragarri dago beti, Kantek berak azaltzen duen modura, eman beharreko doktrinarekiko desadostasunak gaindiezinak direnean). Edozelan ere, arrazoimenaren erabilera publikoa da, benetan, egin ahal dugun gutxiena... pentsamendu kritikoaren alde.

Oharrak

1. Hemen jorratuko dudanarekin lotura estua duen gaia honako hau da: *pentsatu eta sailkatu* ekintzen arteko identifikazio, harreman edo independentziarena (norbaitek azken hori defendatzen baldin badu). Interesgarria izan daiteke Georges Perecek egindako ikerketa bitxia aipatu berri dudan testuan (*Pensar/Clasificar* gaztelerazko bertsioan, Gedisa, 1986). Ezin dut honako hau esan gabe utzi: 2017an, gaztelaniazko bertsioaren berrargitalpena sustatzeko argialetxeak banatutako testuak obra hori egilearen unibertso *sailkaezinaren* adierazle gisa aurkezten du.
2. 2021ean Usurbilen, Gipuzkoan. Sarean eskuragarri (www.youtube.com/watch?v=Nty14RhHFJE; kontsultatuta: 2022-06-24).
3. Aitziber Agirre Ruiz de Arkautek eginiko elkarrizketan (*Elhuyar*, 2020-12-01) (<https://aldizkaria.elhuyar.eus/elkarrizketak/gure-sinesmenak-zalantzan-jartzeko-gaitasuna-da-pe>; kontsultatuta: 2022-06-24).
4. Ikasgai edo programa bezala, pentsamendu kritikoaren tradizioa luzea da Estatu Batuetan. 2022ko uztailean *Foundation for Critical Thinking* erakundeak Pentsamendu Kritikoari Buruzko Urteko Nazioarteko Konferentziaren 42. edizioa antolatu du Santa Barbaran, Kalifornian.
5. Antzeko zerbait gertatzen ari zaio feminismoari. Pentsamendua den heinean (*praxis* batera ezinbestez lotutakoa), feminismoa pentsamendu kritikoaren modalitate nagusietako bat da. Baina, orain, feministok egoera bitxi batean ikusten dugu geure burua, eta horrek apur bat aztoratuta gauzka, zeren feminismoa, harresietatik kanpoko pentsamendua izatetik (Seyla Benhabibek dioen bezala), nazioarteko erakundeen eta estatuen agendaren puntu nagusi bat izatera igaro baita, azkar esatearren.
6. Hala ere, ikasgai berri horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren arduradunek zerbait behintzat egin dute ondo: filosofiako irakasleei eman diete irakasgaiaren edukiak prestatzeko ardura, ez pedagogoei. Lankideok ederki bete dute ataza eta oso lan baliagarria egin dute. Zer esanik ez, hemen azaltzen ari naizen honek ez du inondik inora lan horrekiko kritikarik inplikatzeko.
7. bell hooks, *Enseñar pensamiento crítico*, Rayo Verde, 2022.

8. Sonia Arranz-Turnes *et al.*, 'El Pensamiento Crítico desde la Perspectiva de los Docentes Universitarios', *Estudios Pedagógicos* 44(1), 2018 (www.redalyc.org/articulo.oa?id=173565054006; kontsultatua: 2022-06-09). (Nik euskaratuta; aurrerantzean, aipamen guztietan nire itzulpenak ipiniko ditut).
9. Azpimarrak nireak dira. Silvia Fernández Rivas eta Carlos Saiz Sánchez, 'Pensamiento crítico y aprendizaje basado en problemas', *Revista de Docencia Universitaria* 10(3), 2012 (www.researchgate.net/publication/303589447_Pensamiento_critico_y_aprendizaje_basado_en_problemas; kontsultatuta: 2022-06-09).
10. Hannah Arendt, *Verdad y mentira en la política*, Página Indómita, 2016.
11. Daniel T. Willingham (2007): 'Critical Thinking: Why Is It So Hard to Teach?', *American Educator* 31, , 2007 (https://eduq.info/xmlui/bitstream/handle/11515/19710/Crit_Thinking.pdf; kontsultatuta: 2022-06-21).
12. Eskerrak eman nahi dizkiot Marta García Alonso irakasleari egin dizkidan iruzkinengatik. Horietan, agerian uzten du kritikaren kontzeptuaren sorrerak asko argitzen duela zentzu filosofikoan eta beste diziplina batzuetan zentzu murriztuagoan duen erabilerari buruz, zientzietan, batez ere. Hona bere ekarpenaren zati txiki bat besterik ez dakart: «Kritikak (autokritika barne) bi gauza behar ditu: distantzia eta konparazioa. Distantziak norberaren sinesmenak parentesi artean jartzea eskatzen du; konparazioa alternatibak ezagutzetik dator, horiek baitira sinesmenak edo printzipioak zalantzan jar edo zailtasunak sor ditzaketenak (zientzietatik zein beste kulturak ezagutzetik badatoz ere, edo ikasitakoarekiko sinesmen ezetik). Bata jarrera kontua da (norberaren ideiak distantzia edo parentesi artean jartzeko jarrera izatea); bestea metodo kontua da. Estatistikak ere kritikoaren kontzeptua erabiltzen du zentzu mugatuago eta partikularragoan; horregatik, datu edo datu-multzo orok, erabili aurretik, azterketa kritiko bat behar du zehaztasunari eta adierazgarritasunari buruz, eta horri 'datuaren kritika' esaten zaio» (Marta García Alonso, komunikazio pribatuan). Gaineratu behar dut, orobat, García Alonso ez datorrela guztiz bat hemen defendatzen ari naizenarekin. Ez du uste «pentsamendu kritikoaren zeregina egia sakonak ezagutzea edo ezagutaraztea denik, Platonen kobazuloaren mitoa berreskuratuko bagenu bezala» (bell hooksek nahi duen eran, nolabait, eta nik neuk planteatu dudanez idazki honetan). Izan ere, bere ustez, kritikak ez du egiak ezartzea bilatzen (horretarako teologia dago, dio), baizik eta horiek zalantzan jartzea.
13. Morroi haren istorioa kontatzen zuen ipuin persiar hura ere badatorkit burura, Bagdadeko merkatuan Heriotza ezagutuz eta horrek mehatxu-keinua egin ziolakoan, ihes egiteko zaldi bat eskatu baitzion ugazabari, ahalik eta urrutira eskapatzeko, Samarkandaraino. Nagusiak, errukiturik, zaldia eman zion alde egin zezan. Zerbitzaria ilunabarra baino lehen iritsi zen urrutiko hirira. Egun berean geroago nagusiak berak egin zuen topo Heriotzarekin eta ea bere morroiari zergatik egin zion mehatxu-keinua galdetu, eta Heriotzak honako hau erantzun zion: «Ez, ez da mehatxu-keinua izan, harridura-keinua baizik. Harritu egin nau hemen ikusteak, Samarkandatik hain urrun, zeren gaur gauean han egon behar baitzuen nirekin eramateko».
14. Belladonak 1986an argitaratu zuen bere album bakarra, *Las mujeres y los negros primero*, kanturik ezagunenetakoa *Educación* hau izanik. Gai honi buruz esango dudana guztia 5. oharrean aipatu dudanarekin estuki lotuta dago.
15. Eta, hala balitz, zeren kontrako errebeldia izango litzateke? Hezkuntzak ezin du oraingo munduarekiko egokitzapen akritiko eta pitzadurarik gabea bilatu, ezta ezarritako arau guztiekiko erabateko arbuioa bultzatu ere. Mundu akastun batera egokitzearen eta hura hobetzeko tentsioaren arteko oreka bilatu behar du ezinbestean.
16. 'Eskola urratzailea' kontzeptua bera ez al da paradoxikoa (eta akaso kontraesankorra)? bell hooksen *Teaching to Transgress. Education as the Practice of Freedom* (Routledge, 1994) edo *Teaching Critical Thinking. Practical Wisdom* (Routledge, 2010) tituluei (*Urratzeko irakatsi* edo *Pentsamendu kritikoa irakatsi*) nolabaiteko *boutade* efektua darie. Gaztelaniazko lehenengoaren publizitatean «harago joatea» zentzuarekin erabiltzen da *transgredir* hitza («irakatsi ikasleei arraza-, sexu- eta klase-mugetatik harago joaten» litzateke liburuaren jomuga). Baina gaztelaniaz *transgredir* aditzak 'urratu' edo 'hautsi' esan nahi du, ez 'harago joan'. Egia da *transgress* aditzak ingelesez batzuetan zerbaitez haraindi joatearen zentzua hartu ahal duela. Kontuak kontu, zein da helburua? Harago joatea, hau da, arrazakeria eta sexismoa gainditzea, ala arauak urratzea? Zelako harremana dago bi posibilitate horien artean? Ez dut kontraesanik ikusten, aldiz, Theodor Adornoren *Erziehung zur Mündigkeit* tankerako titulu batean (gaztelaniazko bertsioan, *Educación para la emancipación*, Morata, 2020).
17. Marxen adagio ospetsuaren ildotik, zeinaren arabera filosofoek mundua interpretatzen jardun baitute, eta egin behar dena mundua aldatzea da. Ez dirudi Marxen esaldirik egokiena, historian filosofo askok dedikazio politikoa izan dutelako, baina ez da hau hori garatzeko lekua.
18. Filosofia lehen edo bigarren graduako jakitea den (hau da, 'substantiboa' edo 'adjektiboa' den) eztabaida filosofikoa da berez; baina, berriro ere, ezin gara orain horretan sartu.

19. C. Ulises Moulines, *Pluralidad y recursión. Estudios epistemológicos*, Alianza, 1991.
20. C. Ulises Moulines, *op. cit.* Zera esaten du, zehazki: «jarrera hori kritikotzat jo liteke, eta, beraz, filosofia 'kritika' jarrera orokortutzat hartu, autokritika amaigabea barne, 'kritika' ditxosozko hitza guztiz hutsik dagoen modako bihurtu ez balitz, edozeri aplikatu dakioketena eta, batez ere, ikuspegi eta jarrera jakin batzuek monopolizatu dutena. Ikuspegi eta jarrera horiek ez dute argitasun, argudiozko zorrotasun edo hausnarketaren arrastorik, ezaugarri horiek ezinbestekoak izanik edozein kritika kontzeptutan, nire ustez».
21. Martha Nussbaum, *La terapia del deseo. Teoría y práctica de la ética helenística*, Paidós, 2015, 6. berrinprimaketa.
22. M. Rosenblum *et al.*, "Tell It Like It Is: When Politically Incorrect Language Promotes Authenticity», *Journal of Personality and Social Psychology* 119(1), 2020 (<http://dx.doi.org/10.1037/pspi0000206>; kontsultatuta: 2022/07/03). Nik neuk zuzentasun politiko ezaren paradoxak jorratu nituen hemen: 'Lenguaje apropiado y disidencia: el feminismo por los laberintos de la in/corrección política', *Pikara Magazine*, 2013-12-03.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus